Lehen mundua irudikatzen du: ez da osasuntsua, ez jasangarria... ezta solidarioa ere. Mahai-lagun batzuk (adibidez, 24tik 3). Gelara sartu baino lehen, bakoitzari kartulina urdin ebaki bat emango zaio. Mahai hornitu bat aurkituko dute: janari asko lagun gutxirentzat. Mahai gainean, kartel urdin batek on dagitela opa die. Janaria ez da batere osasuntsua eta hondakin asko sortzen ditu. Mahai honek gelako sarreran kokatuta dago. Beraz, beste mahaikideek, beraien mahaira iritsi baino lehen, mahai honen ondok pasatu behar dute.

1.
mundua

ON EGIN!

Bolly-cao-ak, zukuak (banakakoak), freskagarriak, opil industrialak, plastikozko edalontziak

- JANARI KOPURU HANDIA
- EZ DA OSASUNTSUA
- HONDAKIN ASKO



BATERATZE - LANA

Jarduera honen dinamika, parte-hartzaileen arteko harremanen arabera izango da gehien bat; elkarri ondo ezagutuz gero, naturaltasun handiagoz jokatu dute.

Planetan gertatzen dena ondo islatzen dituzten zenbait portaera sortuko dira:

- Lehen munduak ez die ezer emango gainontzekoei, nahiz eta janaria soberan izan. Zenbait esaldi entzungo dira: Izorra hadi! Batzuk eskuzabal izango dira eta elikagaien bat hartu eta beste mahai batzuetara eramango dute (GKEak lirakeke). Baina soberan dutena soilik banatuko dute!!!
- Hirugarren munduko bi taldeek ez dute ondo ulertuko zer gertatzen den. Batzuetan injustiziaz kezkatuko dira eta, beste batzuetan, konformistak izango dira eta pozik egongo dira dutenarekin. Agian, norbait lehen mundura joango da, duten egoera azaltzeko eta laguntza eskatzeko (liderrak dira).

Elkarrekin lantzen dutenean, behatzaileek bizitako egoeraz hitz egingo dute eta dinamizatzailerak bakoitzak zer rol jokatu duen, agian konturatu gabe, identifikatzen lagunduko die.

9 (ikasle)

BIGARREN MAHAIA: berdea

Hego Amerikako hirugarren mundua irudikatzen du: ez du goserik jasan baina ez dago ondo elikatuta.

Mahai-lagun asko (adibidez, 24tik 9). Gelara sartu baino lehen, bakoitzari kartulina berde ebaki bat emango zaio.

Mahaian zereal ugari aurkituko dituzte baina horixe izango da elikagai bakarra. Urari dagokionez, edalontzi batetan ur zikin apur bat dute, ez da edateko ura. Kartelak, ura edan nahi badute, urrun joan behar dutela azaltzen du. Ahalegin honek herrialde hauetan ura edangarri bihurtzeko egin behar den lan gogorra irudikatzen du (sua pizteko egurra moztu, ura irakin, etab.).

**3.
mundua**
Latinoamerika**EZ DA EDATEKO
URA. EDATEKO
UR BILA JOAN
ZAITZKETE**Zereal ugari
Ur zikina

- KOPURU NAHIKOA
- EZ EDATEKO URA



9 (ikasle)

HIRUGARREN MAHAIA: laranja

Afrikako herrialde gehienek hirugarren mundua irudikatzen du: gose diren hainbat pertsona.

Mahai-lagun asko (adibidez, 24tik 9). Gelara sartu baino lehen, bakoitzari kartulina laranja ebaki bat emango zaio.

Mahai gainean ogi lehor pixka bat baino ez dute aurkituko. Urik ez. Gose den eta edateko urik ez daukan munduko parteak irudikatzen du.

Mahaiko kartelak ondokoa esaten du soilik: Ez dago urik!

**3.
mundua**
Afrika**EZ
DAGO
URIK!**Ogi lehor gutxi
Urik gabe

- GOSEA
- EZ DAGO URIK

**4.****Laugarren taldea: horia**

Laugarren taldeak kartulina horia jasoko du (gainontzeko ikasleak): behatzaileak dira. Aretoan gertatzen den guztiaz ohartu beharko dira: iradokizunak, jarrerak, etab. Jarraian horiei buruz hitz egin beharko dute gainontzekoekin.

ITURRIA

Abad, L., Curto, C., Gallart, N., Monferrer, I., Parera, C., Santó, R. (2009). Educar en la sostenibilidad. Un proyecto para el centro escolar. Madrid: editorial CCS

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

MILURTEKO
GARAPEN
HELBURUAK

HELBURUAK

- Milurteko garapenaren zortzi helburuak ezagutu
- Helburuen lorpen-maila ebaluatu

MATERIALAK

- Sartu interneten
- Power Point programa

LANTZEN DIREN
KONPETENTZIAK

- Ikasten ikasteko konpetentzia
- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia
- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko konpetentzia
- Gizarte eta herritartasunerako konpetentzia



ARIKETA

1- Irakasleak Milurteko zortzi helburuak aurkeztuko dizkio gelari.

2- Zortzi talde osatzen dira eta talde bakoitzak, banatzen zaion helburuari buruz, lan bat egin beharko du.

3- Talde bakoitzak:

a. Egokitu zaion helburuarentzat helmugak zehaztuko ditu.

b. Helmugak neurtzen dituzten adierazleen beharra aztertuko du taldeak. Helmuga bakoitzari dagozkion adierazleak jasoko dituzte edo, denboraren arabera, adibide batzuk aukeratu (hau irakaslearen eskuetan geratzen da).

Aurreko informazioa aurkitzeko kontsulta daitezkeen iturriak:

- NBE-ren web gunea (gaztelaniaz):

www.un.org/spanish/millenniumgoals/poverty.shtml


- ICLI eta Milurteko Garapen Helburuak azaltzen dituen bideoa (euskeraz):

www.youtube.com/watch?v=VgP20pTLctQ

- Helburuen betetze-maila nolakoa den ebaluatuko du talde bakoitzak, ingelesez dagoen web gunea kontsultatuz:

www.mdgmonitor.org/goal1.cfm





d. Taldeari egokitu zaion helburuari buruz jasotako informazioarekin, 6-12 tarteko diapositibak duen Power Point bat muntatuko dute, ondoko gidoia jarraituz:

- Taldeari egokitu zaion helburua
- Dagozkion helmugak
- Helmuga bakoitzarentzat adierazle guztiak edo adibide batzuk
- Adierazle batzuen betetze-maila

Power Pointeko diapositibak irudien eta grafiko bidez hornitzeko baliabideak eta informazioa ondoko web guneetan aurki daitezke:

• BANCO MUNDIAL (gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez): <http://devdata.worldbank.org/atlas-mdg/es/>

• AGENCIA DE NOTICIAS Inter Press Service (gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez): http://ipsnoticias.net/_focus/metas_milenio/graficas.asp#1

• UNICEF-eko gazteen iritzia (gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez): http://www.unicef.org/voy/spanish/explore/mdg/explore_2204.html

e. Talde bakoitzak prestatutako Power Point-a beste taldeei azalduko

die, horrela gelak 8 helburuei buruz informazioa jasoko du.

4- Gelak, sintesi moduan eta ebaluaketa-gisa, Alboan-en web gunean gaztelaniaz dagoen Tribialean jolastuko du: www.objetivosmilenioalboan.org/



Batxilergoa eta Lanbide Heziketa



NIRE
ARDURA
BADIRA ERE

LANTZEN DIREN
KONPETENTZIAK

- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

HELBURUA

Milurteko Garapen Helburuen inguruko ezagutza maila eta jarrerak identifikatu, galdetegi bat erantzunez, aipatutako helburuen lorpenean parte hartzeko.

JARDUERA

- Galdetegia ikasle eta irakasleen artean banatu diagnostikoa egiteko.
- 10. galdera erantzuteko adierazten diren konpromezuak bete ahal izateko epe bat jarri. Betetze maila ebaluatzeko, epe hori amaitzen denean, 10. galderari erantzun, modu honetan berridatzita: "Seinalatu gurutze batez MGH lortzeko burutu dltuzun ekintzak".

Galdetegia

1. Noizbait entzun duzu edota ezagutzen dituzu Milurtekorako Garapen Helburuak (MGH)?

☐ Bai ☐ Ez ☐ Ez dakit

Baiezkoa erantzun baduzu, segi galdera guztiak erantzuten. Ezezkoa erantzun baduzu 5. galderatik aurrera segi.

2. Zeintzuk dira MGH-ei buruzko informazio iturriak zuretzat?

☐ Prentsa arrunta

☐ Prentsa espezializatua

☐ Irratia

☐ Telebista

☐ Internet

☐ Familia

☐ GKE

☐ Ikastetxea

☐ Lagunak

3. Nola zaude MGHen eboluzioari buruz?

☐ Oso informatuta

☐ Nahikoa informatuta

☐ Gutxi informatuta

☐ Batere informatu gabe

4. Ezagutzen dituzu kanpaina, proiektu edo programa bereziren bat MGHei buruz?

- ☐ Bai
☐ Ez
☐ Ez dakit

5. Nolakoa iruditzen zaizu MGHak lortzeko Eusko Jaurlaritzak egiten duen esfortzua?

- ☐ Oso garrantzitsua
☐ Nahiko garrantzitsua
☐ Garrantzi gutxikoa
☐ Garrantzirik gabea
☐ Ez dakit

6. Zure iritziz, zein garrantzia dute MGHek munduko herrietako bizitza-baldintzak hobetzeko?

- ☐ Oso garrantzitsua
☐ Nahiko garrantzitsua
☐ Garrantzi gutxikoa
☐ Garrantzirik gabea
☐ Ez dakit

7. Zein informazio iturri litzateke zuretzat egokiena MGHz informazioa jasotzeko?

- ☐ Telebista ☐ GKE ☐ Prentsa arrunta
☐ Internet ☐ Ikastetxea ☐ Prentsa espezializatua
☐ Familia ☐ Lagunak ☐ Irratia

8. Ondoren MGHak lortzeko har daitezkeen neurri batzuk aipatzen dira. Neurri horiek hartzearen aldekoa ala kontrakoa zara?

1. Aldekoa 2. Kontrakoa 3. Ez dakit

	1	2	3
Espainiako merkatuak Herrialde pobreen nekazal produktuei irekitzea			
HIES-aren fondo globalerako Espainiako ekarpena bikoiztea			
Espainiak herrialde pobretuekin duen kanpo zorra kitatzea			
Herrialde pobreetan dauden Espainiako enpresek, bai orain baita lehen eragin dituzten inpaktu guztiak (ingurumenekoak zein sozialak) ordaintzea			
Gure herrialdeei herrialde pobreetara merke esportatzea ahalbidetzen duten diru laguntzak kentzea			
Espainian armak ekoizpena debekatzea			
Espainiako enpresa multinazionalak lanaren nazioarteko arauak betetzen dituztela egiaztatzea			
Espainiak BPGaren % 0,7 Garapenerako Laguntza Ofizialerako bideratzea			
Kargu politikoetan, emakumearen partaidetza erabakiak hartzerakoan areagotzea tokiko, herrialde eta estatu mailan			

9. Zeintzuk dira zure ustez MGHak betetzearen arduradunak?

- ☐ Iparraldeko Estatu eta gobernuak
☐ Hegoaldeko Estatu eta gobernuak
☐ Iparraldeko gizartea
☐ Hegoaldeko gizartea
☐ Iparraldeko sindikatuak
☐ Hegoaldeko sindikatuak
☐ Iparraldeko herrialdeetako sektore pribatua
☐ Hegoaldeko herrialdeetako sektore pribatua

10. Ondoren MGHak lortzeko partaidetza eskatuko balizute, prest egongo zinakete horiek egiteko?

1. Ziur 2. Ziur aski bai 3. Ziur aski ez

4. Ziur ez 5. Ez dakit

	1	2	3	4	5
Garraio publikoa erabiltzea					
Zure ur kontsumoa bi heren gutxitzea					
Erosten dituzun produktuak non eta nola eginda dauden informazioa eskatzea					
Kontsumitzen dituzun produktuak berrerabiltzea					
Botika generikoak erostea					
Boluntario bezala lan egitea					
MGHak betetzeko manifestazio, protesta, martxa, etabarretan parte hartzea					
Gobernuari erantzukizuna eskatzeko sinadurak biltzea					
Bidezko Merkataritzako produktuak erostea					
Elkarteren batetan sartzea					
Gutun bat idaztea politikoei					
MGHak betetzera zuzendutako kanpaina, proiektu edota programetan parte hartzea					

11. Ondorengo zerrendako zein lau arazok kezkatzen zaitu gehien nazioarte mailan?

- ☐ Migrazioak
☐ Pobrezia
☐ Gatazka armatuak
☐ Arraza, genero, etnia edo erlijioarengatik diskriminazioa
☐ Gizarte-bazterketa
☐ Arma nuklearren garapena
☐ Aldaketa klimatikoa
☐ Nazioarteko terrorismoa
☐ Beste batzuk (idatzi zein)
☐ Ez dakit

ITURRIA

("Fundación para la Cooperación APY Solidaridad en Acción-etik" moldatua)

Denon Artean

MUNDUKO ERRONKAK, DENON ERANTZUNKIZUNA

ARIKETA

HELBURUA

- Arazo larrienak zerrendatzea eta ezberdintzea —bai mundu mailako arazoak, bai tokian tokikoak—, eta hobetzeko dauden proposamenak ezagutzea.
- Jasangarritasunari buruzko hausnarketa egitea, betiere kontzeptu orokor gisa hartuta.

LANTZEN DIREN KONPETENTZIAK

- Zientziaren, teknologiaren eta osasunaren kulturarako gaitasuna
- Ikasten ikasteko konpetentzia

2000. urtean Milurteko Goi Bilerak mezu argi bat igorri zuen: nazio guztiek munduko pobreziaarekin amaitzeko lehentasuna izan beharko zutela. Goi Bilerara bertaratu ziren guztiek Milurtekoaren Adierazpena sinatu zuten eta bertan espiritu hori islatzen zen. Adierazpena, Milurtekoaren Garapenerako Helburuekiko konpromiso sendoa da.

lhitzen atal batzuetan ikusi izan ahal duzunez, lehenengo zazpi helburuak ondoko gai hauekin lotuta daude: gosea eta pobreziaarekin amaitzearekin, lehen hezkuntza herritar guztientzat bermatzearekin, gizon eta emakumeen arteko berdintasunarekin, haurren eta amen heriotza-tasa jaistearekin, zenbait gaixotasunen aurrerapena gelditzearekin (GIB/HIES, paludismo edo tuberkulosia) eta, amaitzeko, ingurumenaren jasangarritasunarekin. Zortzigarrena, zehazki, garapenerako mundu mailako elkarte baten sorrera sustatzean datza; elkarte horrek herrialde aberatsen eta pobreen konpromisoa eta elkartasuna bilatuko du aurretik aipatutako helburu horiek lortzeko.

Helburu guzti horiek mundu jasangarria lortu nahi dutela esan dezakegu? Gogoratu beharra dugu jasangarritasunak honako hiru alderdi hauek dituela: ingurumena, soziala eta ekonomikoa.

Milurtekoaren zortzi Helburuak aipatutako hiru esparru horien barruan sailkatuko ditugu (ingurumena, soziala eta ekonomikoa).

Erraza da? Erraz bana eta sailka ditzakegu atal bakoitzean? Edo, alderantziz, helburu bakoitzak zerikusia du alderdi bat baino gehiagorekin eta askotan hiru alderdiekin? Adieraz ezazu ondoko taulan:

MILURTEKOAREN HELBURUAK	Ingurumena	Soziala	Ekonomikoa
1. Gosea eta pobreziarekin amaitzea			
2. Hezkuntza herritar guztientzat			
3. Genero berdintasuna			
4. Haurren heriotza-tasa murriztea			
5. Amen heriotza-tasa murriztea			
6. Gaixotasunen aurrerapena geldiaraztea			
7. Ingurumenaren jasagarritasuna			
8. Mundu mailako elkarteak			

Grafikoki interpretatu ondoren, gai horretaz taldeka hitz egin eta saiatu zaitzete gelakoekin batera ondorio batzuk ateratzen. Hasteko, saiatu zaitzete galdera honi erantzuten:

Zer erantzun mota behar dute arazo horiek? Puntuala, orokorra...?

Zer egin dezakegu gure klasetik, ikastetxetik, familiatik, adiskideekin batera, herritik, hiritik, lurraldetik, etab.?


Ezagutzen al duzu gosetearengatik, gaixotasun batengatik, pobreziarengatik, etab. engatik laguntza behar duten taldeentzako kanpainetan eta jardueretan parte hartzen duen pertsonarik?

Zure etxean edo ikastetxetik kanpo hurbil duzun eremuan galde dezakezu. Irratian, telebistan entzuten ditugun berriak gogoratu. Ba al dute honekin zerikusirik?

Helburu horien garapenari buruzko informazioa bilatu gero klasean horri buruz hitz egin ahal izateko.

Erraz lortzeko modukoak dira? Zer egoeratan gaude gaur egun? Bilatu horri buruzko informaziorik duen web orriren bat eta ikaskideei jakinarazi.

Bakoitzaren ekarpenekin, seguru aski zerbait garrantzitsua lor dezakegula. Eutsi horri!



SOLIDARIO IZATEN IKASI

"Elkartasunerako Hezkuntza"

Portugaleteko Santa Maria ikastetxea

1997-1998 ikasturtean 'Elkartasunerako Hezkuntza' izenburua zuen derrigorrezko ikasgai bat ikastetxearen hezkuntza-ibilbidean sartu zen. Ikasgai horren bidez, batxilergoko ikasleek inguruko gizarte-errealitate batzuk ezagutzeko aukera izan dute, egoera horiekin sentibilizatu dira eta zenbait kasutan ikasle askok gain hartu dute egoera horrekiko konpromisoa. Ekimena ezartzeko ardura izan dutenen ustez, elkartasuna ikas daitekeen gaitasun bat da, gainontzeko ikasgaiak ikasten diren moduan. Ideia hori, gelan bertan jarduera horiek garatzeko abiapuntua izan zen.

Ikasgaiak zenbait eduki teoriko ditu; eduki horiek eskolan garatzen dituzte eta ikasleak izaera hori ulertzeko oinarritzeko kontzeptu batzuetara hurbilduko ditu. Dena dela, egia esateko, batez ere gizarte praktiketan oinarritzen da aipatutako ekimena. Parte-hartzaileek astean behin haiek aukeratzen duten zentzoren batera joan eta egoera txarrean dauden pertsonen lagundu edo horiekin egongo dira. Eskolak ekimen honekin hasi zuenean bakarrik lau entitate atxikita zituen, baina gaur egun baditu hamabi errealitate. Horien guztien artean, zainketa aringarrietako ospitale-unitate bat dute, gaixo psikikoentzako igeriketa ikastaroak egiten dituzte edo antzerki-tailerra burutzen dute hirugarren adineko pertsonen egoitza batean.

Gizarte Ekintzako Gelaren arduraduna den Sonia Acerok esandakoaren arabera, gauza ez da karitate egitea, balioetan hezteak baizik, eta horregatik % 20 parte-hartzaileek eskola utzi ondoren zenbait urtez jarraitzen dute ekimen solidario horrekin edo beste batzuekin.

Hala ere, hasiera zaila izan zen, zenbait taldek (ikasleak, laguntza-zentro batzuk eta baita guraso eta irakasleak ere) nolabaiteko mesfidantza baitzuten. Oztopoak gainditu egin dira emaitzak ikusi diren heinean. Horrela, azken hamahiru urte hauetan mila ikasle baino gehiagok bizi dute esperientzia hau.

Atal honetan estatu mailan nazionalen aitzindaria den esperientzia bat aurkezten dizuegu. Erabilgarria edo eredugarria izan daiteke ikastetxeetan borondatezko programa bat ezartzeko

"Gazteak balioekin" Saria

La Caixa Gizarte-Ekintza Fundazioak ekimena aintzatetsi zuen "Gazteak balioekin" saria emanez. Ikastetxeko hogeitabat ordezkariak jaso zuten saria Eusko Legebiltzarrean egindako ekitaldi batean. Sari horrekin garrantzia eman zioten gai horretan inplikatu den hezkuntza-komunitate osoaren lanari eta, gainera, saria lan horrekin jarraitzeko eragingarria da.

Informazio gehiago:

www.colsantamariaportu.com





The Earth Charter Initiative:



ethical framework for a sustainable world.

By Marina Bakhnova



Esta propuesta pretende promover la evolución hacia una sociedad global basada en modos de vida sostenible y forjada en el respeto, la integridad ecológica, los derechos humanos, la diversidad, la justicia y una cultura de paz.

The Earth Charter is a declaration of fundamental ethical principles for building a just, sustainable and peaceful global society in the 21st century. It seeks to inspire in all people a new sense of global interdependence and shared responsibility for the well-being of the whole human family, the greater community of life, and future generations. It is a vision of hope and a call to action.

This initiative is centrally concerned with the transition to sustainable ways of living and sustainable human development. Ecological integrity is one major theme. However, the project recognizes that the goals of ecological protection, the eradication of poverty, equitable economic development, respect for human rights, democracy, and peace are interdependent and indivisible. It

provides, therefore, a new, inclusive, integrated ethical framework to guide the transition to a sustainable future.

The Earth Charter is a product of a decade-long, worldwide, cross cultural dialogue on common goals and shared values. The initiative began as a United Nations initiative, but it was carried forward and completed by a global civil society initiative. The Earth Charter was finalized and then launched as a people's charter in 2000 by the Earth Charter Commission, an independent international entity. The drafting of the Charter involved the most inclusive and participatory process ever associated with the creation of an international declaration. This process is the primary source of its legitimacy as a guiding ethical framework. The legitimacy of the document has been further enhanced by its endorsement by over 4,800 organizations, including many governments and international organizations.

At a time when major changes in how we think and live are urgently needed, the Earth Charter challenges us to examine our values and to choose a better way.

At a time when education for sustainable development has become

essential, the Earth Charter provides a very valuable educational instrument.

At a time when international partnerships are increasingly necessary, the Earth Charter encourages us to search for common ground in the midst of our diversity and to embrace a global ethic that is shared by an ever-growing number of people throughout the world.


At the same time, this initiative is an extraordinarily diverse, global network of people, organizations, and institutions that participate in promoting and implementing the values and principles of the Earth Charter. The project is a broad-based, voluntary, civil society effort. Participants include leading international institutions, national governments and their agencies, university associations, non-government organizations and community-based groups, city governments, faith groups, schools and businesses – as well as thousands of individuals. Many organizations have formally endorsed the Earth Charter and are using it or promoting its vision.



UPV-EHUren Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa

Euskal Herriko Unibertsitatearen zerbitzu hau unibertsitatearen garapenerako lankidetzan gauzatzen diren ahalegin solidarioak eraginkortasunez bateratu eta bideratzeko sortu zen. Martxan jarri diren programak honako hauek dira, besteak beste: 1998an, Mitch urakanak, Nikaraguan, eragin zuen suntsipenaren ostean, hiru landa-eskola eraikuntza eta Cobanen (Guatemala) San Carlos Unibertsitatearen dokumentazio zentro bat sortzea.

Horrez gain, EHUko irakasleek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek 1996an '% 0,7 solidaritate funtsa' sortu zuten txirotasun eta marjinazio egoeran dauden pertsonetako solidaritatea sustatzeko. GKE desberdinek burutuko dituzten ekimenen hautaketa bazkide egiten da. Iritzi horiek bildu ostean, eskuragarri dagoen aurrekontua boto gehien lortu dituzten proiektuen artean banatzen da.




www.ehu.es/oficop/euskara/index.htm

Ahotsa aldizkaria

Euskadiko Garapenerako GKEen koordinakundea argitaratzen duen aldizkari honen helburua euskal gizarteari erakunde horiek egiten duten lanaren berri ematea da. Euskadin lankidetzan aritzeko dauden aukera desberdinei buruzko informazioa eskaintzen du, gizarte arazoekin eta herrien edo pertsonen arteko desberdintasunekin lotutako erreportajeak, etab. jasotzen ditu, baita iritzi artikulak, garatzen diren ekimen desberdinen deialdiak eta bestelako datu interesgarriak ere. 1.500 ale argitaratzen dira eta ikastegietara, elkarteetara, gizarte-etxeetara, gizarte-mugimenduetara eta herri administrazioetara zuzenduta dago.



www.ongdeuskadi.org




GUIRE ARAZOA ERE DIRA

2006an Medicusmundik garapenerako lehenengo hezkuntza proiektua martxan jarri zuen, milurtekoko autobusa izenekoa. Eskola esparrura zuzenduta zegoen. Autobusa herrialde osoan zehar MGHak ezagutzera ematen, baina bidai luze baten ostean, haren arduradunek ikastetxeetan bertan gauzatzeko proiektu bihurtzea erabaki zuten. Inflexio-puntua helburuen hedapenak eragin zuen, hau da, MGHen garapeneraren azterketa sustatzea, helburuen hausteak eta proiektua bultzatzeko bide desberdinak aurkitzea.

Ikasgelan proposamen desberdinak sustatzeko materialak ondorengo web orri honetan daude eskuragarri: www.tambiensoncosanuestra.org/book/export/html/19. Eduki desberdinen helburua bideoen, ipuinen edo unitate desberdinen bidez irakasleei MGHekin lotutako gaiak jorrazteko lana erraztea da. Gainera, "Zer egin dezakezu zuk" atalean nahi duten pertsonak lankidetzaren eraginkor baterantz bideratzeko aukera desberdinak eskaintzen dira.

Ingurumen hezkuntzaren inguruko nazioarteko topaketa Confint 2010

Ekainaren 5etik 10era Brazilian Planeta Zain dezagun Haur eta Gazteen Nazioarteko Hitzaldia burutuko da. Topaketa horretan, 12 eta 15 urte bitarteko 600 bat gaztek eta nerabek, planetako zenbait lekutik etorritakoek, gizarte eta ingurumen alorreko zenbait gai orokor landuko dituzte eta arreta berezia jarriko dute klima aldaketaren inguruko gaietan.



Topaketa horretan, Ingurugelaren bitartez, Euskadiko zenbait ikaslek parte hartuko dute; topaketaren bidez, ikasleei konpromiso orokorretan era aktiboan parte hartzeko aukera eman nahi zaie eta baita zenbait ardura har ditzaten, horrek jasangarriak bihurtzeko asmoz. Topaketaren azken agiria burutzeko helburuarekin, Arduren Gutuna alegia, egun horietan kulturen arteko eta belaunaldien arteko jarduera ludiko batzuk eta tailer praktikoko edo elkarrizketa batzuk egingo dira, beste ekimen batzuekin batera.

NBEk Milurtekoaren Helburuei buruz egingo duen hurrengo Goi Bilera

Adostutako datarako, bost urte besterik ez direnean gelditzen, munduko liderrak New York-en bilduko dira, irailaren 20tik 22ra bitartean, Milurteko Garapen Helburuen kanpaia nola burutzen ari diren aztertzeko eta finkatutako helburuak bizkortzeko. Ban Ki-Moon, NBEko idazkari nagusiaren arabera

"ezin diegu huts egin nazioarteko komunitateak mundu hobea lortzeko konpromisoa beteko duela espero duten milaka miloi pertsonari".

Bilera horretan, dauden desfaseak konpromisoaren bidez zuzendu nahi dituzte agenda batek zehazten dituen ekintza batzuen bidez. Topaketa horretan, nazioarteko zenbait agintarik parte hartuko dute eta Nazio Batuen Batzar Nagusiaren urteko eztabaida baino zertxobait lehenago burutuko dute; horrela, bi bilera horien artean sinergiak sortuko dira.



Consumo responsable también en casa

Durante este curso 2009-2010, la Federación de Asociaciones de Madres y Padres de Bizkaia, BIGE, ha puesto en marcha un nuevo proyecto de sensibilización sobre consumo responsable en el entorno de la comunidad escolar del territorio. El proyecto, que cuenta con la financiación de la Diputación Foral de Bizkaia, pretende fomentar prácticas de consumo ético, ecológico y solidario e inicialmente se está llevando a cabo en cinco centros educativos: Alzaga, en Erandio; Zubileta, en Getxo; Rontegi, en Barakaldo; Cervantes, en Bilbao y Ugao en la localidad homónima. Para desarrollar esta iniciativa, las AMPAS abordarán la diferente temática en tres grandes bloques, uno por trimestre.



Comercio justo

También denominado comercio alternativo, cuenta día a día con más adeptos en nuestra sociedad. Promovido por numerosas ONGs, Naciones Unidas y diversos movimientos sociales y políticos, busca un doble objetivo: por un lado mejorar el acceso al mercado de los productores más desfavorecidos y, por otro, cambiar las injustas reglas del comercio.

Así, durante el primer trimestre diferentes charlas, llevadas a cabo con la colaboración de Intermón Oxfam, sirvieron para explicar la necesidad de establecer unas relaciones comerciales más justas entre productores del sur y consumidores del norte. Asimismo, se puso en marcha una iniciativa de venta de productos adheridos a estas condiciones y se realizó un envío de trípticos informativos a todas las familias de los centros adscritos al proyecto.

Campaña Ropa Limpia

A través de esta iniciativa puesta en marcha en doce países europeos, ONGs, organizaciones de consumidores, sindicatos, etc. trabajan desde hace años en defensa de los derechos laborales en el sector textil mundial, tanto en regiones consumidoras como productoras de ropa. Con la ayuda de Setem, durante el segundo trimestre se realizaron encuentros en los que se utilizaron etiquetas de diferentes prendas para explicar, entre otras cosas, el porqué del elevado precio de las marcas. Además, se ha realizado una experiencia de trueque de prendas y la información ha sido enviada a los hogares de la comunidad educativa.

Banca ética

Esta propuesta nació para ofrecer a todos los clientes de las entidades financieras la posibilidad de, conscientemente, ser responsables de la gestión de su dinero. Así, hoy en día cada persona puede decidir en qué se invierten sus ahorros. Con la colaboración de Fiare, durante el tercer trimestre se pretende demostrar a los padres y madres del alumnado cómo su dinero puede contribuir al desarrollo de otros países. Además de reuniones informativas y trípticos, la organización ha previsto la instalación de paneles explicativos en el centro.

BIGE Gurasoen Elkartea
Ronda 27, 1º izda. 48005 Bilbao
94 416 93 60
bige@ehige.org



Alboan Baliabide Zentroa

Alboan GKEak giza garapenarekiko konpromisoaren sustapenean lan egiten du. Giza garapen horrek jasagarria izan behar du eta pertsona guztiek aukera bera izan behar dute garapen hori lortzeko. Burutzen dituzten ekimenen artean, eta gizarte-justizian oinarritutako hezkuntza eta prestakuntza eskaintzeko helburuarekin, 2009an, bost urteko proiektu bat jarri zuten abian, balio guzti horiek geletara hurbiltzeko.

www.alboan.org web orriaren bitartez, irakasleei aukera anitz eskaintzen dizkiete gaia zenbait ikuspuntutik lantzeko. Eduki horiek gazteleraz eta euskaraz daude eta horien bidez Alboan-ek **zenbait unitate didaktiko** aurkeztu ditu bigarren hezkuntzako bigarren zikloko eta batxilergoko ikasleentzat. Irakasle batzuen laguntzarekin garatu dituzte material horiek eta adin eta gaien arabera banatu dira; dena dela, kasu bakoitzaren beharren arabera erraz egoki daitezke.

Beste alde batetik, une jakin batzuetan, proiektu honek **material jakin batzuk** eskaintzen ditu, urtean egiten diren **zenbait kanpainatan** lantzeko. Adibidez, poster, galdeketa, koaderno, komiki edo mandala batzuk ditu Hezkuntzaren Mundu Mailako Kanpainarako (www.cme-espana.org); aipatutako kanpaina hori, 2. eta 3. Milurtekoaren Garapen Helburuetan (MGH) oinarrituta, apirilaren amaieran burutzen da. Halaber, urrian, Pobrezia Zero Kanpainarekiko inplikazioa sustatzeko

lan egiten du eta, gainontzeko hilabeteetan, MGHak ezagutarazi, hurbildu eta helburu horien lorpenari buruzko hausnarketa sortzeko lan egiten du.

Ikastetxeek, halaber, euren eskoletan aldi baterako **erakusketak** jartzea eskatu dezakete. Erakusketa horiek zenbait gai lantzen dituzte, hala nola, herri batzuetako biztanleek bizi duten errealitatea (adibidez Indian edo Kanbodian), boluntarioen kontzeptua gure gizartean edo errefuxiatuen edo desplazatuen egoera. **Ikus-entzunezko materialari** dagokionez, Alboan-ek zenbait proposamen egin ditu, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleei zuzenduta. Eduki horien bidez, eskubide, betebeharrak eta erantzukizunei, zein parte-hartzeari edo kultur-aniztasunari buruzko jarduerak batzuk aurkeztu nahi dizkie eta, gainera, ikasleei zenbait errealitate ezagutarazi nahi die (bai oso urrun ditugunak baita hurbil ditugunak) hausnarketa eta ikasketa sustatzeko.



Maleta bidaiariak

Aukera guzti horietaz gain, proiektuak baliabide ugariko zentro bat du. Zentro horretan, landutako gaien buruzko liburuak, hiztegiak, urtekariak edo atlasak daude baita diskoak, DVDak, bideoak, beste web orri batzuekiko loturak eta jokoak ere (adibidez, MGHei buruzko Trivial joko dibertigarria). Web atari horren bidez, Alboan-ek mailegu-zerbitzua eskaintzen die eskaera egiten duten guztiei. Gainera, “maleta bidaiariak” izeneko beste zerbitzu bat du. Zerbitzu horrek irakasleei —bai hezkuntza arautuan zein arautu gabea—, gaur egungo gaiak lantzeko zenbait material eskaintzen die. “Maleta” horiek gai zehatz bati buruzko baliabideekin osatutako atalak dira.



www.alboan.org

Bilbo: Padre Lojendio, 2, 2º • Tel.: 944 151 135

Donostia: Ronda, 7, 4º I • Tel.: 943 275 173

Gasteiz: Monseñor Estenaga, 1 • Tel.: 945 20 26 76



IKAS MATERIALAK

INTERMON OXFAM TXIROTASUNA DESAGERRARAZTEAREN ALDE

Intermon Oxfamek hainbat unitate didaktiko proposatu ditu ikasleek txirotasunaren kontzeptuari ikuspuntu emozional batetik heltzeko. Helburua gazteek iparraldeko eta hegoaldeko txirotasunaren arteko desberdintasunak eta arazo handi horrek gizartean eragiten duen aukera falta ulertzea da. www.intermonoxfam.org web orrian, eskola-baliabide ugari lor daitezke Milurtekoko Garapen Helburuen kanpainaren oinarrietako bat lantzeko: hau da, pobrezia erazte. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako jarduerak euskaraz eta gaztelaniaz daude eskuragarri. Horrez gain, webgune horretan hainbat proposamen ere eskaintzen dira: monografikoak, DVDak, jokoak eta gaian sakontzeko lotura interesgarriak.



MANOS UNIDAS ETA MGH

Manos Unidasek azken urteotan hezkuntza-material desberdinak landu ditu, ikasgelan Milurteko Garapen Helburuen Kanpainarekin lotutako gaiak lantzeko. Unitate didaktikoak, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduta, doakoak dira eta kasuan kasuko hezkuntza mailara egokitutako multzo desberdinetan banatuta daude. Horrez gain, irakasleen lana errazteko helburuarekin, guztietan ariketak, askotariko dokumentazioa eta baliabide lagungarriak bildu dituzte. Hezkuntza-osagarri horren bitartez, Manos Unidasek, ikasturte bakoitzean, helburu bat aztertzea pentsatu du, egungo egoeraren analisi zehatzagoa, aurrez ikusitako ekimenak eta banaka nahiz taldeka gauza daitezkeen ekintzak burutu ahal izateko. Esaterako, azken ikasturteetarako, erakunde horrek unitate didaktiko batzuk prestatu ditu muturreko txirotasuna eta gosea desagerraraztearekin, lehen hezkuntza unibertsala lortzearekin eta amen osasuna hobetzearekin lotutako helburuak lantzeko. Guztiak daude eskuragarri web orriko hezkuntza-materialen atalean:

www.manosunidas.org



LIBURUAK

**Pobreza y solidaridad:
hacia un desarrollo sostenible.**
Hego Euskal Herriko Aurrezki
Kutxen Federazioa, 2006
Bilduma: Ekonomi Gerizan

Pobrezia eta desberdintasunak, gaur egun, munduko biztanleriaren zati handi baten arazorik larrienetakoak dira, bai garapen bidean dauden herrialdeetan, bai Europako herrietan, baita Euskadin

ere. Eratu zenetik, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioak heldu dio gai honi. Hortaz, 'Ekonomi gerizan' bildumaren aurreko hamabi zenbakietan, gai ekonomiko eta sozial desberdinak eztabaidatu ostean, 2005ean erakunde horrek hasierako sentsibilizazio hura modu nabarmenagoan islatzea erabaki zuen. Horrela, txirotasuna eta desberdintasunaren kausak eta eraginak, eta ordura arte irtenbide bat bilatzeko

gauzatutako ekintzak aztertzen dituen liburu hau sortu zen. Gainera, liburuan arreta berezia eskaintzen zaie migrazioei eta horiek, eskualdeen ekonomian, dituzten ondorioei



HAMARRETIK ZORTZI

"Hamarretik zortzi" Zabalketa Elkarteak landutako programa interaktibo bat da. Planeta honetan dugun kultur-aniztasuna eta garapenerako hezkuntza ikasgeletan jorratzea du helburu. Bigarren Hezkuntzan lantzen diren ikasgai desberdinen bidez, hau da, tutoretza, erlijioa, etika, hiritartasunerako hezkuntza, plastika edo gizarte zientzietan lan eginez garapen osoa lortzeko prestatuta dago. Horrela, DVDa nahiz fitxa didaktikoak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez daude eskuragarri. Bideoan Amerika, Asia eta Afrikako zortzi gaztek beren bizipenak kontatzen dituzte. Fitxetako jarduerak, aldiz, arazoak eta herrien arteko desberdintasunak jorratzen dituzte: txirotasuna, ur falta, kontsumoa, ongizate kontzeptua, generoa, hezkuntza, migrazioa, baliabide naturalen erabilpena eta gatazken konponbidea. Labur esanda, errealitate desberdinei heltzen zaie metodologia desberdinak erabiliz; datu estatistikoen analisi, ikaskuntza jokoen bidez, testuak lantzea edo rol-playak, besteak beste, gazteak sentsibilizatzeko material eraginkorrak dira. Horrez gain, Euskadiko datuak ere kontuan hartuz, landutako gaiarekiko hurbiltasuna areagotzen da.

Ingurugelan dago eskuragarri

Objetivos de desarrollo del milenio: una responsabilidad compartida.

Egilea: Ignacio Soletó

Argitaletxea: Siglo XXI. Madrid

Lan honetan, Madrilén, 2005eko maiatzean, izenburu berberarekin, Carolina Fundazioak antolatu zuen mintegian, parte-hartzaileen ekarpenak jasotzen dira. Topaketa horretan, MGHei buruzko eztabaidagune bat ireki ahal izan zen eta, bertan parte hartu zutenek, Espainiako Gobernuak esparru honetan dituen jarrerak eta konpromisoak azaldu eta aztertzeak aukera izan zuten, errenta ertaineko herrialdeetan eta Latinoamerikan txirotasunaren kontrako lanari arreta berezia eskainiz. Liburu honetan, gobernu eta beste herri-administrazio, unibertsitate, ikastegi, GKE eta nazioarteko erakunde ugariak hainbat ordezkarik (esaterako, Nazio Batuek, Munduko Bankua eta Garapenerako Banku Inter-amerikarra) parte hartu zuten.

BIDEOA

14 kilómetro

Egilea/zuzendaria: Gerardo Olivares

Horixe da, hain zuzen, Europa eta Afrikaren artean dagoen distantzia. Kilometro gutxi batzuk baino ez dira, baina milioika pertsonarentzat hesi bat da gosea eta miseriatik alde egin ahal izateko. Amnistia Internazionalak, Arraza Diskriminazioa Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna zela eta, apirilaren 21ean Bilbon, bideo hau proiektatu zuen, pertsona horiek beren ametsa erdietsi arte gainditu behar dituzten traba ugariak dokumental horren bidez erakusteko asmoarekin. Hiru gazteek (Violeta Sunny, Buba Kanou eta Mukela Kanou) egiten duten bide luzea eta gogorra erakusten digu Niger, Algeria eta Marokotik. Beste kasu batzuetan, bide hori milaka kilometrotara ere hasten da eta urteak irauten ditu. Film luze honen xedea immigrazioaren prozesua iluntzen duten itzalak desagerrarazteko argi pixka bat ematea da.

WEBGUNEAK

www.un.org/spanish/millenniumgoals



Web orri hau funtsezkoa da, Milurteko Helburuen kanpainan lan egiteko. Nazio Batuek ekimenari buruzko informazio guztia eskaintzen dute webgune horretan: esate baterako, helburu bakoitzarekin lotuta abian jarri diren programak, egungo eta etorkizuneko proiektuei buruzko informazioa edo urteko balantze-txostenak. Horrez gain, web orri horretan, antolatutako jarduera guztiak jasotzen dituen egutegia ikus daiteke, baita kanpainak eragindako albisteak eta helburuak lortzen lan egiten duten bulego eta erakunde guztiak ere. 'Txirotasuna desagerrarazi ahal dugu' lelopean,

gazteentzako atalean gazteei zuzendutako proiektu arrakastatsuak ikus ditzakegu, baita benetako pertsonen benetako bizipenak, inkestak eta galdera-sortak eta gidaliburu bat ere.



www.ibaizabaletika.blogspot.com



'Etika' izenburua duen blog honetan ikasgai horretan ikasleekin landu daitezkeen proposamenak argitaratzen dira. Bertan, Euskal Herriko irakasleei zortzi MGHak ikuspuntu desberdinetatik lantzeko aukerak eskaintzen zaizkie. Besteak beste, web orri honetan MGHen kanpainaz gain, beste gai batzuk ere jorratzen dira bideoa, galdera-sorta, filma eta hausnarketen bidez, esaterako, immigrazioa, autonomia pertsonala,

Giza Eskubideak eta totalitarismoak eta gobernu sistema desberdinak.



www.revelatecontralapobreza.org



Pobreziaren kontrako Espainiako Elkarteak gizarte erakundeek, sindikatuak, herritar mugimendu eta plataformek osatzen dute, zehazki, Espainiako lurralde osoan mila erakunde baino gehiago dira guztira. Sektore desberdinek, pobreziaren kontrako borrokan bat eginda, presioa egiteko eta neurri zehatzak lortzeko dei egiten diete herritarrei. Aliantza ustez, Milurteko Garapen Helburuak (MGH) lortzeko gobernuan dihardutenen borondate politikoa baino ez da behar, zehazki, herrialde pobreei zuzendutako laguntza zenbatekoa eta kalitatea

areagotzeko neurri zehatzak sustatzeko, kanpo-zorra ezeztatzeko eta bidegabekeria, desberdintasuna eta diskriminazioa desagerrarazteko ahalbidetzen dieten merkataritza arau berriak bultzatzeko borondate politikoa.





33.zenbakia prestatzen ari gara. GAIA: Bidezko merkataritza



ingurugela Ingurumen Hezkuntza zure eskura

Bilbao

Ondarroa, 2
48004 Bilbao
944 11 49 99
ceida-bilbao@ej-gv.es

Donostia-San Sebastian

Basotxiki, 5
20005 Donostia
943 32 18 59
ceida-donosti@ej-gv.es

Legazpi

Brinkola, z/g
20220 Legazpi
943 73 16 97
ceida-legazpi@ej-gv.es

Vitoria-Gasteiz

Baiona, 56-58
01010 Vitoria-Gasteiz
945 17 90 30
ceida-vitoria@ej-gv.es

Todos los números de

ihitza

ren zenbaki guztiak

www.euskadi.net/ihitza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA